

Koleraren aurkako txertoa mikropartikuletan

Antigenoak mikrokapsulatuta, koleraren aurkako txerto inaktibatua bat lortzeko bidea ireki du EHUko Farmazia Fakultateko Marta Pastor ikertzaileak. Ikertzaileak erakutsi du mikrokapsulatutako txertoa kolera inaktibatua bezain eraginkorra dela, baina erraz dosifikatu eta manipula daitekeen hautsa izatearen abantailarekin, eta, gainera, txertoa garraiatzea eta banatzea horrenbeste garestitzen duen hotz-katea saihestu egingo litzatekeela.

Farmazia Fakultateko NanoBio-Cel taldean egin du lan Pastorek, Kubako Finlay Institutuarekin lankidetzan. Txertoa mikrokapsulatzea "spray drying" edo atomizazio bidezko lehortze-teknikaren bitartez egin zen, eta polimero gastroerresistentek erabili ziren. Hala, mikrokapsulek botika urdaileko azidoetatik babesten dute, batetik, eta, aldi berean, edukia duodenoan askatze-

ko gai dira, koleraren aurkako erantzun immunea sortzen den tokian.

Mikrokapsulek aukera ematen dute mihipeko konprimatuak, kapsulak edo aho bidezko suspentsioak erraz prestatzeko. Halaber, urtebete 25 °C-ko tenperaturan egon eta gero eraginkortasunik galtzen ez dutenez, posible izango litzateke txertoaren garraioa eta banaketa horrenbeste garestitzen dituen hotz-katea saihestea.

Gaur egun koleraren aurkako txertoak eraginkorrak direla frogatuta dago. Alabaina, prezioa nabarmen merkatuko litzateke hotz-katea saihestea posible izango balitz, eta, gainera, gaixotasunaren kontrako borroka hobetu egingo litzateke. Izan ere, XIX. mendetik ezagutzen den arren, gaur egun, oraindik, urtean 100.000 eta 120.000 heriotza inguru eragiten ditu kolerak. ●



Marta Pastor, EHUko ikertzailea. ARG.: EHU.

Emakumezkoak hiesetik babesteko eraztuna, pertsonetan probatzeko prest

Estatu Batuetako Alergiaren eta Gaixotasun Infekziosoen Institutuak aurreratu duenez, hiesetik babesteko bagina barneko eraztun eraginkor, seguru eta fida-



Ikertzaileek garatu duten bagina barneko eraztunak emaitza ezin hobekak izan ditu makakoetan. ARG.: STAUSS/WIKIPEDIA.

garri bat garatu dute, eta laster hasiko dira probatzen emakumezkoetan. Makakoetan % 100 eraginkorra dela frogatu dute, eta PNAS zientzia-aldizkarian argitaratu dituzte emaitzak.

Aurretik egindako beste ikerketa batzuek erakutsi dute hiesaren birusaren aurkako botikak baliagarriak izan daitezkeela infekzioa eragozteko. Hortaz, kondoia erabiltzea onartzen ez den lekuetan, aukera ona izan daitezke. Baina orain arte ez dute metodo aproposik topatu botika horiek hartzeko. Pilulak, adibidez, egunero eta dosi handitan hartu behar dira; baginako gelak, berriz, justu koitoaren aurretik eman behar dira, eta askok zailtasunak izaten dituzte horretarako.

PNASek argitaratutako ikerketan parte hartu duten ikertzaileek hamar urte

eman dituzte irtenbide egokia bilatzen. Azkenean, bagina barnean tenofovir antibirala askatzen duen eraztun bat garatu dute. Tenofovirra ohikoa da hiesaren tratamenduan, baina pilula gisa hartzen da, eta orain arte ez zen begiratu eraginkorra ote zen erabilera topikoan. Makakoekin egindako probetan erabat eraginkorra dela ikusi dute: % 100 babesten du hiesetik, hilabeteko iraupena du, eta hilekoaren ziklora egokitzen da.

Hurrengo pausoa, beraz, pertsonetan probatzea da. Ikertzaileek adierazi dutenez, lehen probak 60 emakumezkoekin egingo dituzte, New Yorken, Albert Einstein Medikuntza Fakultatean. Emakumezkoetan ere eraztuna segurua dela eta dosi egokia askatzen duela ikertzea da esperimenduaren helburu nagusia. ●